




*SAREEN SAREAREN  
GOBERNATZEKO  
ETA KUDEATZEKO  
KODE ETIKOA*



**Sareen Sarearen Gobernatzeko eta  
Kudeatzeko Kode Etikoa**

2023ko abendua

Sareen Sarea  
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala  
Iparragirre 9 • 48009 Bilbao  
Tel.: 946 569 230  
info@sareensarea.eu

[www.sareensarea.eus](http://www.sareensarea.eus)

# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b>	<b>4</b>
<b>1. Helburua</b>	<b>6</b>
<b>2. Sareen Sareako gobernu- eta kudeaketa-organoei lotutako pertsonentzako orientabide etikoak</b>	<b>8</b>
2.1. Orientabide orokorrak	8
2.2. Orientabide espezifikoak, partaidetza eta/edo erantzukizun mailaren arabera	8
<b>3. Sareen Sarearen gobernuaren parte diren ardura mailen arteko antolaketa etikorako orientabidea</b>	<b>13</b>
<b>4. Sareen Sarea ordezkatzearekin eta han parte hartzearekin lotutako funtzioetatik erator daitezkeen gatazka edo kontuzko egoerei aurre egiteko irizpideak</b>	<b>18</b>
4.1. Gatazkek konpontzeko irizpideak eta prozedura	18
4.2. Ordezkatzeko eta/edo publikoki aurkezteko irizpideak	19
4.3. Baliabideak erabiltzearen gaineko prozedura	19
4.4. Ordezkaritza-jardueretatik eratorritako opariak edo ordainsariak jasotzearekin eta ematearekin lotutako prozedura	20
<b>5. Ezarpena eta jarraipena</b>	<b>22</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>25</b>

# HITZAURREA

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira historikoki. Azken urteetan zehar aurrerapausoak eman dira, eta sareak eta federazioak eratu dira. Horiek presentzia, onarpena, elkarri-zketarako gaitasuna eta eragin politikoa irabazten laguntzen diete horien parte diren erakundeek. Hainbat jarduera esparrutan eta lurraldetan egin dira ahalegin horiek.

Hain zuzen ere, esparruen eta lurraldeen bat-egite horren emaitza da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sareen Sarea. Gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea du helburu, gizarte eta politika arloko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena, sektore zabal eta anitza egituratzen laguntzen duena, eta partekatzen dituzten ildo estrategikoen inguruan sektorea indartzen eta kohesionatzen laguntzen duena.

Helburuen garapenerako, Sareen Sareak Espa-

rru Etiko baten inguruan lerrokatu du haren Misioa. Haren izateko arrazoia definitzen duten babilioak eta konpromisoak jasotzen ditu aipatutako Esparru Etikoak. Kideak diren erakundeek, beste erakunde batzuen eta gizarte zibileko eta Administrazioako eragileek arteko jarduketa eremuei eta harreman eremuei koherentzia, kohesioa eta kalitatea ematea da Esparru Etikoaren helburua.

Dokumentu honek Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa aurkezten du, aipatutako Esparru Etikoaren lehenengo zehazpen gisa. Sareen Sarearen printzipioek eta konpromisoek haren gobernu- eta kudeaketa-organotatik duten irismena definitzen du Kode Etikoak. Erakundearen ekintzak eta erabakiak hartzeko prozesuak orientatzeko helburua duten argibide zehatzak ematen ditu. Aldi berean, Sareen Sarearen barneko eta kanpoko interrelazio esparruak gardentasunez lantzeko tresna bat bilakatu nahi du. Azken finean, erakundearen jarduera haren Esparru Etikoarekin lerrokatuta dagoela bermatzea da helburua, eta interes-gatazkek edo

jarrera gaitzesgarriek baldintzatu eta kaltetu ez dezaten saiatzea.

Sareen Sarearen arau esparruaren zati osagarria da Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etiko hau, Estatutuekin eta Barne Araudiarekin batera eta horiekin koherentzian. Erakundearen gobernu- eta kudeaketa-organoetan parte hartzen duten pertsonen erantzukizunak eta konpromisoak definitzea du xede, eta erantzukizun horiek Sareko antolaketa maila bakoitzean nola egituratzen diren zehaztea.

Dokumentua bost ataletan egituratuta dago:

Lehenik eta behin, Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoaren helburua eta irismena definituko ditugu.

– Bigarrenik, Sareen Sarearen Esparru Etikoarekin bat datozen jarduteko orientabideak emango ditugu, SAREEN SAREko gobernu- eta kudeaketa-organoekin lotutako pertsoneri zuzenduta.

– Hirugarren blokean Sareen Sarearen antolaketa maila bakoitzari dagozkion erantzukizunen irismena definituko dugu, ardatz hauen arabera: erantzunkidetasuna, subsidiarotasuna, zeharkakotasuna

eta jasangarritasuna.

– Dokumentu honen laugarren atalak Sareen Sarea ordezkatzearekin eta han parte hartzearekin lotutako funtzioetatik erator daitezkeen gatazka edo egoera delikatuerei aurre egiteko irizpideak eskaintzen ditu.

– Dokumentu honen azken atalean Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa ezartzeko eta haren betetze mailaren jarraipena egiteko mekanismoak zehazten dira. Erakundearen baitan sor daitezkeen egoera delikatueta edo arazoetan laguntzeko eta horiei aurre egiteko orientabideak jasotzen ditu.

# 1. HELBURUA

Sareen Sarearen Esparru Etikoarekin lerrokatutako orientabideak ezartzea da kode honen helburua. Bi helburu ditu:

Batetik, Sareen Sareko gobernu- eta kudeaketa-organoen parte diren pertsoneri zuzendutako erreferentziazko irizpide eta orientabide multzoa eskaintzen du Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoak. Pertsona horien jarduketa eta harremanetan Esparru Etikoan definitutako printzipioak eta konpromisoak nola aplikatu behar diren argitzen eta zehazten duten orientabideak dira. Zehazki, honakoei zuzenduta daude: bazkide diren erakundeak ordezkatzuz Sareen Sarearen Batzarra osatzen duten eta hartan parte hartzen duten pertsoneri; Zuzendaritza Batzordea eta/edo Batzorde Iraunkorra, Lantaldeak edo Aholkularitza Batzordea osatzen dituzten pertsoneri; eta Lantalde Teknikoko eta Koordinazio Lantaldeko kideei.

Orientabide horiek honela bereizten dira:

- Oinarrizko irizpideak, orokorrak, Sareen Sarearekin lotutako pertsona guztiei apli-

katzekoak. Oinarrizko jarduera esparrua eta harreman esparrua zehazten ditu horientzat guztientzat.

- Irizpide espezifikoak, pertsonak Sareen Sareko gobernu- eta kudeaketa-organotan duten partaidetza mailaren eta/edo erantzukizun mailaren arabera.

Bestetik, erantzunkidetasun- eta subsidiariotasun-printzipioak esplizitatze aldera, Sareen Sareko antolaketa maila bakoitzeko erantzukizunen mapa zehazten du Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoak. Hirugarren mailako erakunde gisa definitzen du SAREEN SAREA dokumentu honek.

Hirugarrenik eta azkenik, pertsonen eta erakundearen arteko gatazka posibleak edo Sareen Sarearekin ordezkatzearekin eta han parte hartzearekin lotutako funtzioetatik eratorritako alderdi edo egoera delikatuak saihesteko eta/edo konpontzeko erakundeak nola jokatu behar duen argitzen duten irizpideak ematen ditu. Zehazki:

- gatazkak konpontzeko prozedura bat

ezartzen du;

- Sareen Sarearekin lotura duten pertsonen eta/edo erakundeen ordezkariak edo agerpen publikoko funtzioen inpartakudeak kudeatzeko irizpideak zehazten ditu;
- Sareen Sarearen edo haren kargura dauden baliabideen erabilera arautzeko protokolo bat zehazten du;
- eta ordezkariak-jardueretatik eratorritako opariak edo ordainsariak jasotzea eta ematea kudeatzeko irizpideak identifikatzen ditu.

## 2. SAREEN SAREKO GOBERNU- ETA KUDEAKETA-ORGANOEI LOTUTAKO PERTSONENTZAKO ORIENTABIDE ETIKOAK

Erakundearen misioa sustatzeko, ezarritako helburuak betetzeko eta haren ospe ona zaintzeko konpromisoa dute Sareen Sarearen gobernu- eta kudeaketa-organoetan parte hartzen duten pertsonak, Esparru Etikoan ezarritako printzipioak bere eginda. Sareen Sareko kideak diren pertsonen jarduketek SAREA bera ordezkatzeko dute, eta pertsona horien jokabideak Esparru Etikoan modu inplizituan agertzen den erakunde-etika islatu behar du.

### 2.1. Orientabide orokorrak

Orokorrean, gobernu- eta kudeaketa-organoei lotutako pertsonen arteko harreman esparrua eta tratua errespetuzkoa eta atsegina izatea espero da, berdintasuna sustatuz eta honakoak saihestuz: pertsona edo ideia desberdinekiko errespetu falta, jarrera oldarkorrek, hitzezko indarkeria, edo egoera edo jarduketa baztertzaila potentzialak.

Pertsona horiek guztiek modu profesionalean eta arduraz jokatu dute Sareen Sareko ospe onarekin eta baliabide materialekin.

Erakundearen duten posizioa ez dute erabiliko etekin pertsonalak eskuratzeko.

Halaber, Sareen Sarearen eta bazkideak diren erakundearen konfidentzialtasuna eta pribatutasun-politika errespetatuko dituzte, datu pertsonalak babestearekin lotuta indarrean dagoen araudia betez.

### 2.2. Orientabide espezifikoak, partaidetza eta/edo erantzukizun mailaren arabera

Gainera, Sareen Sareko kideek duten erantzukizun edo partaidetza mailaren arabera, jarraian adierazitako orientabide etikoak jarraitu beharko dituzte:

#### 2.2.1. Batzar Orokorra

Bazkide diren erakundeek modu aktiboan parte hartuko dute Batzar Orokorrean, haien ordezkarien bidez, Sareen Sareko Estatutuetan eta Barne Araudian jasota dauden baldintzetan.

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuko dute hartutako eraba-



kietan, eta jarduketa- eta ordezkari-tza-plan osoan genero-ikuspegia txertatzen saiatuko dira, zeharka.

- Hala dagokionean, beharrezko organo edo eremuetan ordezkatuko dute Sareen Sarea, eta erakundearen ospe ona mantentzen saiatuko dira.
- Sareen Sareko erantzukizunak betetzean eskuratutako informazioa ez dute erabiliko etekin pertsonala edo bazkide den erakundearen etekina lortzeko.
- Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoaren jarraipena egiteaz arduratuko dira.

### 2.2.2. Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Iraunkorra

Zuzendaritza Batzordeko eta/edo Batzorde Iraunkorreko kideak:

- Adostasun zabala bilatuko dute Sareen Sareko Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana gauzatzearekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuan.
- Ildo estrategikoen gainean eztabaidatzeko prozesuetan ahalik eta erakunde gehienek

(bazkideak eta atxikiak) parte har dezaten sustatuko dute.

- Autonomiaz eta independentziaz babestuko dituzte Sareen Sarearen interesak, bazkideak diren erakundeen barne-aniztasuna errespetatuta.
- Gardentasuna, zintzotasuna eta argitasuna bermatuko dituzte kontuak emateko prozesuan.
- Beharrezko organo edo eremuetan ordezkatuko dute Sareen Sarea, eta erakundearen ospe ona mantentzen saiatuko dira.
- Karguan egoteagatik eskuratutako informazioa ez dute erabiliko etekin pertsonala edo bazkide den erakundearen etekina lortzeko.
- Agerpen publikoetan saihestu egingo dituzte hausnarketa pertsonalak edo kide diren sarearen edo erakunderen hausnarketak; hau da, sektore osoaren izenean parte hartu eta erabakiko dute, eta ez kide diren sarearen edo erakundearen izenean bakarrik.

- Koordinazio Taldearen eta Lantalde Tekni-

koaren eskumenen esparrua eta esparru profesionala errespetatuko dituzte.

– Zuzendaritza Batzordeko eta/edo Batzorde Iraunkorreko kide gisa hartutako konpromisoak beteko dituzte asistentziari, parte-hartzeari eta inplikazioari dagokienez.

– Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoaren jarraipena egingo dute.

### 2.2.3. Batzordeak eta Lantaldeak

Sareen Sareko Funtzionamendurako Barne Araudian jasotako funtzioak izango dituzte Batzordeak eta Lantaldeak. Batzorde edo lantalde egonkorretan edo ad hoc sortutakoetan parte hartzen duten pertsonak:

– Modu aktiboan, eraginkorreetan eta arduratsuan parte hartuko dute kide diren batzordeari edo lantaldeari agindutako zereginetan.

– Profesionaltasunez egingo dituzte ekarpenak, haien esperientzian eta ezagutzan oinarrituta, egindako lanaren independentzia eta autonomia bermatuz.

– Zuzendaritza Batzordearen jardueraren itzultze osoa eta frogagarria egingo dute.

– Haien ardurak betetzean eskuratutako informazioa ez dute erabiliko etekin pertsonala edo bazkide diren erakundearen etekina lortzeko.

### 2.2.4. Aholkularitza Batzordea

Kontsultarako organoa da Aholkularitza Batzordea, eta Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordearen mende dago. Estrategiak eta jarduketak diseinatzen eta garatzen laguntzea da haren funtzioa, Sareen Sarea epe ertainean eta luzean orientatzeko ideiak eta iradokizunak eskaintzearen bidez. Hari lotutako pertsonak:

– Modu aktiboan, eraginkorreetan eta arduratsuan parte hartuko dute Aholkularitza Batzordeari agindutako zereginetan, erabakiak hartzeari, aholkularitza emateari eta proposamenak egiteari dagokienez.

– Independentziaz eta autonomiaz emango dituzte orientabideak eta iradokizunak. Interes-gatazka jakinen bat identifikatzen badute, uko egingo diote hausnarketa-prozesuan parte hartzeari.

– Haien ardurak betetzean eskuratutako informazioa ez dute erabiliko etekin pertsonala edo bazkide diren erakundearen etekina lortzeko.

### 2.2.5. Lantalde Teknikoa eta Koordinazio Lantaldea

Lantalde teknikoak eta koordinazio-lantaldeak osatzen dute Sareen Sareko lantalde profesionala.

#### **a) Koordinazio-lantaldeko pertsonak ardurak hauek dituzte:**

- Sareen Sarearen jarduera teknikoa modu eraginkorrean eta efizientean zuzentzea.
- Sareen Sarearen jarduera guztien kalitatea eta profesionaltasuna bermatzea.
- Sareen Sarearen jarduerak erregularatasunez ebaluatzea eta haien jasagarritasun ekonomikoaz arduratzea.
- Haien eskumenen barruan dauden eztabaida publikoetan eta erabakitze-prozesuetan parte hartzea, erakundearen ildo estrategikoei lotutako aukera-irizpideak aintzat hartuta.
- Karguan egoteagatik eskuratutako informazioa etekin pertsonala lortzeko ez erabiltzea.
- Beharrezko organo edo eremuetan Sareen

Sarea ordezkatzeko, eta erakundearen ospe ona zaintzea.

- Koordinazio-lantaldeak Sareen Sareaordezkatzeko duen agerpen publikoetan, hala dagokionean, Sareen Sarearen ahotsa, jarrerara eta iritzia helaraztea, balorazio pertsonalik egin gabe.

- Bereziki lantaldeko teknikoko eta, oro har, Sareen Sareko kideen ongizate mentala, harremanekin lotutako ongizatea eta ongizate materiala zaintzea.

- Urteko Plana garatzean lantalde teknikoa proaktiboa izan dadin sustatzea.

#### **b) Lantalde teknikoko pertsonak ardurak hauek dituzte:**

- Zuzendaritza Batzordeak eta Koordinazio Lantaldeak agindutako zereginak egitea, konpromisoz eta erantzukizunez.
- Sareen Sarearen garapen onaz arduratzea, haren misioa, bisioa, balioak eta ildo estrategikoak aintzat hartuta, eta proiektuen diseinuan eta gauzatzean proaktiboak izanez.
- Taldean lan egitea eta elkarri laguntzea.

- Hala dagokionean, Sareen Sarea modu eraginkorrean ordezkatzeko aurretiazko prestakuntza egitea.
- Kanpoko eragileekin egindako bilera eta topaketetan erakundearen etikaren arabera jokatzea.
- Agerpen publikoetan hausnarketa pertsonalak mugatzea.

### 3. SAREEN SAREAREN GOBERNUAREN PARTE DIREN ARDURA MAILEN ARTEKO ANTOLAKETARAKO ORIENTABIDEAK

Esparru Etikoa ez da mugatzen Sareen Sareko gobernuari lotutako pertsonak hartzen dituzten konpromisoetara bakarrik. Jarduteko jarraibideak eta horien guztien arteko erlazio-esparru bat eskaintzen dituzte konpromiso horiek, printzipio batzuetan oinarrituta, baina, era berean, beharrezkoa da Sareen Sareko antolakuntza mailetan Esparru Etiko hori nola hedatzen den zehaztea ere.

Sareen Sareko antolakuntza mailen arteko interrelazioa 2022an zehaztu eta adostu zuten, Korapilo instituzionalei eta antolakuntzakoei buruzko hausnarketan. Sareen Sarearen gobernurako eta kudeaketarako oinarritzko zoru etikoa definitzen duten **lau ardatzak** esplizitu egitea ahalbidetu zuen prozesu horrek.



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen sarea da Sareen Sarea. Antolaketari eta funtzioei dagokienez, hiru maila bereizten dira haren garapenean: lehen mailako erakundeak eta bigarren eta hirugarren mailako sareak.


Lehen mailako erakundetzat hartzen dira esku-hartze sozialaren amaierako hartzaileei zuzendutako jarduerak garatzen dituztenak.

Bigarren mailako erakundetzat hartzen dira esku-hartze sozialerako eremu jakin batean eta

lurraldeetako batean lehen mailako erakundeek sortutako erakundeak.

Bigarren mailako sare horiek sarean antolatzen direnean, hirugarren mailako sareak sortzen dira; gure kasuan, Euskadiko sareen sarea: Sareen Sarea.

Ahalmenak indartzea eta Sareen Sarearen baitako sareen eta horietako kideak diren erakundeen arteko erantzukizunak egituratzea da erantzunkidetasun-ardatz honen helburua. Hau da, modu esplizituan azaltzen du zer egin behar duen bakoitzak, zer antolakuntza mailatakoa den aintzat hartuta.



## 2. ARDATZA: SUBSIDIARIOTASUNA

Antolakuntza mailen arteko interrelazio-irizpidea behetik gorakoa da.

Lehenengo maila zuzeneko arretaz arduratzen da lan egiten duen esku-hartze sozialeko eremuan.

Bigarren mailako sareek eremu hori ordezkatzeko funtzioak dituzte, bazkide diren erakundeen ordezkari gisa.

Hirugarren mailak, bigarren mailak agindutako jarduera-esparrua onartzen du.

Hau da, goiko maila bakoitza haren azpikoaren araberakoa da. Maila batek egin dezakeena eta egin behar duena, ez du egingo goragoko mailak.

Interrelazio-esparrua erakundeen eta plataformen arteko errespetuan oinarritzen da; simetrikoa da maila guztietan, osagarria da, ez da hierarkikoa, eta sarea indartzen duten eta parte-hartzea sustatzen duten sinergien bidez gertatzen da.



Sareen Sarea gobernatzeko eta kudeatzeko, haren zeharkako funtzioa bereizi eta onartu behar da eta, ondorioz, kide diren entitate eta erakundeekiko funtzioak ere bai.

Sareen Sareak, haren fundatze-helburuen arabera, funtsen posizioak finkatzeko erantzukizuna du, eta horiek defendatzeko eta aldarrikatzeko erantzukizuna ere bai, elkarrizketa zibilaren bidez eta Euskadiko Hirugarren Sektore osoari eragiten dioten zeharkako gaien gaineko eragin politikoaren bidez. Horretarako, kide diren erakundeen berezitasuna, nortasuna eta espazio propioak errespetatu behar ditu.

Horri esker, Sareen Sarearen esparrutik, denen artean egin dakieke aurre Hirugarren Sektore Sozial osoari edo haren zati handi bati eragin diezaioketen gaiei, eta ez erakunde bakoitzak bakarra eta modu eksklusiboan.



Sareen Sarea gobernatzeko eta kudeatzeko eredu garatzeko orduan, oreka mantendu behar da betebeharraren, desiraren eta jarduteko gaitasunaren edo baliabideen eskuragarritasunaren artean. Hala, bide-orri onargarri bat zehazten saiatu behar da, honakoak aintzat hartzen dituen: Sareen Sareak egin behar duena, hark egitea espero dena eta benetan egin dezakeena eta egiten duena, dituen baliabideen, gaitasunen eta erantzukizunen arabera.

Oreka etikoaren ikuspegi hori dago Sareen Sarearen erantzukizun esparruaren oinarrian, 3. mailako erakunde gisa. Hau da, Sareen Sareak zer egin behar duen azaltzen du, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala egituratuta dagoen antolaketa maila eta maila funtzionalen ereduaren arabera.

– **Zerbitzuak ematearekin lotutako funtzioari** dagokionez, Sareen Sareak ez du

emango lehenengo eta bigarren mailako erakundeek gauzatzen duten zerbitzurik. Haren Misioarekin lotutako erantzukizun funtzionalak betetzera mugatuko da. Dena den, erantzukizun horien artean dago kide diren erakundeek eskatzen dituzten eta beste maila batzuetan garatzen ez diren zerbitzu espezifikokoak ematea.

– **Ordezkaritza-funtzioei** dagokienez, behetik gora eman behar dira horiek, beheko mailetatik; kasu honetan, Sareen Sareko kide diren bigarren mailako sareen eskutik. Erantzunkidetasunez jokatzeko, bigarren mailako erakundeek esleitutako funtzioak bete behar ditu Sareen Sareak, eta haren jardueraren eta kudeaketaren gaineko kontuak eman behar ditu urtero Batzar Orokorrean, kide diren erakunde guztiek osatzen duten erakunde gobernu-organo nagusian.

– **Politika publikoen diseinuan eta plangintzan parte hartzeari** dagokionez, Sareen Sareak proposamenak egingo ditu eta politika horiek zehaztearen erantzunkidea izango da, parte hartzen duten gainerako eragileekin batera. Hala, gai orokorren gaineko ekarpenak egingo ditu, zeharkako ikuspegi global batetik. Orokorrean, bazkide diren bigarren mailako erakundeetara bideratuko ditu jaso-

tako ekarpenak eta horien esku utziko ditu, horiek baitute gai eta alor jakinen gaineko trebakuntza eta esperientzia.

– **Inpaktua ebaluatzearekin lotutako funtzioei** dagokienez, haren jarduera esparru propioarekin lotutako ebaluazioak bakarrik egingo ditu Sareen Sareak, eta zeharkako inpaktua eta balio erantsia duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko arlo orokorren gainekoak ere bai.

– **Eragin sozialarekin lotutako funtzioei** dagokienez, erakusketa publikoan, salaketan eta mobilizazioan oinarrituko da Sareen Sarearen jarrera, zeharkako ikuspegi inklusibo eta globaletik, eta hura osatzen duten bigarren mailako erakunde aniztasuna eta dibertsitatea jasoko ditu, adostasunez. Eragin politikoko ekintza publikoak Sareen Sarearen batzordeetan eta lantaldeetan egindako lanaren eta lortutako akordioen emaitza izango dira, eta gobernu-organoek baliozkotu beharko dituzte.

– **Komunikazio-funtzioei** dagokienez, bozgorailua izango da, 2. mailako erakundeekin koordinatuta, sektorea ikustarazteko eta onarpena irabazteko helburuz. Sektoreko gai komunak komunikatzeaz arduratuko da, eta



2. mailako erakundeen esku utziko du horiek ordezkatzan duten eremuko esperientziak ezagutzera ematea.

– **Sektorea indartzearekin lotutako funtzioei** dagokienez, lidergo-funtzioa izango du, eta 2. mailako erakundeen kudeaketa hobetzeko tresnak (adb., finantzen, digitalizazioaren, berrikuntzaren... arlokoak) eskura izatea bultzatuko eta sustatuko du; halere, ez ditu bere gain hartuko egitasmo horiek kudeatzeko zereginak.

## 4. SAREEN SAREA ORDEZKATZEAREKIN ETA HAN PARTE HARTZEAREKIN LOTUTAKO FUNTZIOETATIK ERATOR DAITEZKEEN GATAZKA EDO KONTUZKO EGOEREI AURRE EGITEKO IRIZPIDEAK

### 4.1. Gatazkak konpontzeko irizpideak eta prozedura

Egoera gatazkatsuak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko prozedurak eta tresnak eskuratzen joan da Sareen Sarea, ikuspegi juridiko eta etikotik (adibidez, sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren, jazarpen sexualaren eta LGTBI+ jazarpenaren aurkako protokoloa).

Dena den, Sareen Sareko Gobernu- eta Kudeaketa-organoekin lotutako pertsoneri edo erakundeei eragiten dieten orotariko gatazka posibleen aurrean, interes-gatazken aurrean barne, honako prozedura jarraituko du.

Edozein pertsonak/erakundek, gatazkak hari eragin zein ez, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dizkio gatazka eta haren ezaugarriak, idatziz; eta lantalde teknikoko kidea bada, Koordinazioari jakinaraziko dizkio, hala dagokionean eta gatazkan nahastuta ez badago.

– Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordea arduratuko da egoera aztertzeaz eta, hala badagokio, egokituz jotzen duen organoari txosten bat eskatu beharko dio, ebazpen-prozesuan laguntzeko; Batzorde Iraunkorrari, Sareen Sarearen Esparru Etikorekin jarraipenerako zereginak egiten dituen Lantalde bati edo helburu horretarako ad hoc sortutako beste lantalderen bati eskatu diezaiokie txostena. Jasotako informazioan oinarrituta, adostasunez hartutako erabakia- ren gaineko irizpena igorriko du.

#### Kasuistika:

– Gatazka lotuta badago onura pertsonala lortu ahal izatearekin, ebazpenak aintzat hartuko du eraginpeko pertsonari honakoen artean hautatzen uzteko aukera: onuraz gozatzea edo Sareen Sareko berezko posizioa mantentzea.

– Gatazka lotuta badago Sareen Sareko

organo batek erabaki bat hartzearekin, eraginpeko pertsonak ez du parte hartuko erabakitzeko eta ebazteko prozesuan, gatazka pribatua izan zein Sareen Sarearen barruan ordezkatzeko duen erakunde bazkidearekin zerikusia izan.

## **4.2. Sareen Sarea ordezkatzeko eta/edo publikoki aurkezteko irizpideak**

Autonomia eta independentzia dituen sarea da Sareen Sarea. Haren jarduera garatzean, alde batera uzten ditu haren Misioarekin harreman zuzenik ez duten auzi politikoak, ideologikoak edo erlijiosoak.

– Horrek esan nahi du, batetik, Sareen Sarea ordezkatzeko duten pertsonak saihestu egin behar dutela Sareen Sareko kide diren erakundearen artean adostasunik sortzen ez duten aukera ideologiko, erlijioso edo alderdikoen alde agertzea edo horiekiko atxikimendua agertzea. Halaber, aukera politikoren bat adierazten duen hitzezko edo ikur bidezko adierazpen esplizitu zein implizitu oro saihestu beharko dute.

– Bestetik, Sareen Sarea sareen sare bat denez, ez da politikoki lerrotatuko erakundearen adostasunetik kanpo. Ez zaio atxikiko adosta-

sun hori eta Esparru Etikoan jasotako printzipioak errespetatzen ez dituen inolako manifestu edo erakunderi.

– Adostasunik ez dagoen kasuetan, erakundeak ez du haren jarrera erakutsiko, eta ez du adieraziko partikularra izan litekeen iritzirik. Nolanahi ere, Aholkularitza Batzordearen edo beste batzorde edo lantalde baten laguntza jaso dezake Zuzendaritza Batzordeak, arlo zibikoaren eta politikoaren arteko muga lausoa duten gaien gaineko jarrera hartzeko.

– Erakunde jakin bateko indar politikoei harremanetarako erronda bat hasiz gero, ordezkaritza duten guztiekin jarriko da harremanetan Sareen Sarea, erakunde eta/edo pertsona gisa izan ditzaken kidetasun edo desadostasunak alde batera utzita.

## **4.3. Sareen Sarearen edo haren kargura dau den baliabideak erabiltzearen gaineko prozedura**

Sareen Sarea ordezkatzeko ekitaldi edo bileraren batera joan izangatik sortutako gastuak ordainduko dizkio Sareen Sareak pertsonari, hura kide den erakundeak berariaz eskatuta, eta honako irizpideen arabera:

- Tren-, hegazkin- edo autobus-txartelak aurrez erosi behar dira, eta klase ekonomikoak izango dira. Bidaiatu behar duen pertsonak txartelaren ordainagiria eta bidaiak egin izanaren egiaztatzea aurkeztu behar ditu.
- Bileretara edo ekitaldietara taxiz egindako bidaiak ordainduko dira, betiere agenda-arrazoiengatik justifikatuta badaude eta kostu mugatuarekin.
- Ostatu hartzearen gastuak eta elikadura-gastuak ordaintzeko, pertsona joango den hiriko batez besteko prezioa hartuko da kontuan. Lantalde teknikoari dagokio kopuru horiek kalkulatzeko, bidaiaren aurretik.
- Sareen Sareak uste badu egokia dela prezio hori gainditzen duten otordu jakin batzuetan parte hartzea edo prezio hori gainditzen duten establezimenduetan ostatu hartzea, beste eragile batzuekin harremanetan jartzea errazten duelako (adibidez, erakundearen antolakuntzak eskaintzen duelako), gastua jakitera eman behar da eta arrazoitu egin behar da. Hau da, jasagarritasun ekonomikoaren printzipioa zerk gailentzen duen arrazoitu behar da.

Horretarako, dokumentu bat bete behar da (ikusi

1. eranskina), eta honakoak adierazi behar dira: otorduan parte hartu duten edo establezimenduan ostatu hartu duten Sareen Sareko kideen izena, guztizko kostua, gastua justifikatzen duten arrazoiak eta lortutako emaitzak. Informazio hori Koordinazio lantaldeari eman behar zaio, eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu beharreko dokumentazioa atxikiko da, urteko kontuak egiteko.

#### **4.4. Ordezkaritza-jardueretatik eratorritako opariak edo ordainsariak jasotzearekin eta ematearekin lotutako prozedura**

Sareen Sarearen gardentasun- eta independentzia-printzipioekin bat etorriz, baita elkarrekotasun- eta koherentzia-printzipioekin ere, aintzat hartu behar dira honako irizpideak opariak jasotzeari edo emateari dagokionez, baita ordezkaritza-jardueretatik eratorritako ordainsariei dagokienez ere.

- Ez da onartuko erabakitako gehieneko balioa (50 €) gainditzen duen oparirik, edo SAREEN SAREko kidearen independentziari eragin diezaiokeen oparirik.
- Oparia pertsona jakin batentzat bada, aitortu eta erregistratu egin behar da, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako prozedurari ja-

rraituz (ikusi 2. eranskina).

- Oparia erakundearentzat bada eta erabilera partikularrekoa bada, zozketa egingo da berdinen taldeko kideen artean. Erabilera kolektibokoa bada, erakundearentzat izango da. Dena den, erregistratu egin behar da eta opariaren amaierako helmuga zehaztu behar da.
- Honako datuak erregistratu behar dira: oparia zer pertsonak jaso duen, nork eman duen (izena, kargua eta erakundea), opariaren deskribapena eta gutxi gorabeherako balioa, eta zer egin zaion (nork hartu duen edo zozketatu egin den).
- Ordezkaritza-lanen truke ordainsaria jasoz gero, ordainsaria Sareen Sarearen izenean sartu behar da, erakundearen helbidean eta bankuko kontuan.
- Eratorritako ordainsari edo gastu horien erregistroa Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu beharreko dokumentazioari gehituko zaio, urteko kontuak egiteko.

## 5. EZARPENA ETA JARRAIPENA

Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordea arduratu- tuko da Gobernatzeko eta Kudeatzeko Esparru Etikoa eta Kode Etikoa ezartzeaz eta horien jar- rraipena egiteaz. Hura ezartzeko eta jarraipena egiteko, egoki ikusiz gero, Batzorde Etiko baten laguntza jaso dezake, lantalde egonkor gisa, edo beste edozein batzorde iraunkor edo *ad hoc* bat- zorderen laguntza ere jaso dezake, Kode honen garapenak harekin dakartzan askotariko zeregi- nak egiteko.

Esparru Etikoarekin eta Kode honekin lotu- tako zereginak eta eskariak askotarikoak eta konplexuak direnez, antolaketa-ereduak malgua eta irekia izan behar du, eta ez du mugatu behar Batzorde Iraunkor bat sortzera bakarrik (adibi- dez, Batzorde Etikoa), Zuzendaritza Batzordea- ren laguntza gisa. Sortzen doazen kasuistika eta arazo guztiei berariazko erantzunak emate alde- ra, sarearen beraren ahalmena eta kapitala apro- betxatzea komeni da, eta horiei aurre egiteko ar- dura erakunde bakar bati ez egoztea. Dena den, batzorde oro Zuzendaritza Batzordearen mende egongo da haren funtzioak garatzeko.

Sareen Sareak Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoarekin zerikusia duten ekintza espezi- fikoak txertatuko ditu indarrean dagoen Plan Es- tratetikoa, Gobernu Organoek jarraipen egokia egingo dutela bermatzeko. Urtero, egindako jar- duketen gaineko txosten bat aurkeztuko da Bat- zar Orokorrean.

Halaber, Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etiko honen jarraipenerako aurreikusitako ekint- zen artean, prestakuntza-, dibulgazio- eta elkar- truke-egitasmoak (adibidez, jardunbide egokiei buruzkoak) sustatuko dira Sareen Sareko ki- deak diren pertsonen/erakundearen artean. Hala, Esparru Etikoa eta Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa tresna erabilgarriak eta ezagunak bihurtzea da helburua, erakundearen kulturari bertan txertatuak.

Zuzendaritza Batzordea arduratuko da Kode hau aldiaren behin eguneratuko dela bermatzeko be- harrezkoak diren prozesuak sustatzeaz. Horretar- rako, aurrez, parte hartzera deituko ditu erakun- de kideetako eta atxikitako erakundeetako

kideak diren pertsona guztiak, prozesu horretan parte hartzeko interesa dutenak.

## 5.1. Derrigortasuna

Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoaren helburua haren Esparru Etikoan ezarritakoa zehaztea da, eta loteslea izan nahi du. Hura ezartzean sortzen diren elkartruckerako eta eztabaidarako espazioen mende egon behar dute hura betetzeak eta hari atxikitzeak. Desadostasunei edo jarrera edo egoera delikatuiei eta polemikoei aurre egiteko laguntza-ikuspegia erabiltzea proposatzen du Sareen Sareak, eta harremanak lehenestea, zigorren aurretik.

Zuzendaritza Batzordeak, edo hark eskuordetutako Batzordeak, bere gain hartuko ditu hausnarketarekin eta modu etikoan aurre egitearekin lotutako funtzio hauek, zer jarduketara abian jarri baloratzeko. Batzorde edo Lantalde honen esku-menekoa izango da kasu bakoitza baloratzea eta martxan jarri beharreko neurriak aintzat hartzea; gomendioak izan daitezke, edo gai jakin batzuen gaineko prestakuntza etikoak, edo Sareen Sareko kolektibo jakin batzuei zuzendutakoak.

## 5.2. Etika Batzordea

Esparru Etikoarekin lotutako gaien jarraipena batzorde egonkor baten esku utziz gero, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeak deialdi ireki bat egingo du bertan parte hartzeko. Hala, banako gisa parte hartuko duten pertsonak aukeratuko ditu, honako irizpideak kontuan hartuta: genero-berdintasuna, erakundeen proportzionaltasuna haien tamainaren arabera, erakundeetan dituzten karguak eta esku-hartze sozialeko arloak.

Etika Batzordeak, Zuzendaritza Batzordearekin koordinatuta, honako funtzio hauek izango ditu:

- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen artean eta bertako profesionalen artean Esparru Etikoa eta Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa ezagutzera ematea.
- Esparru Etikoa eta Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa aplikatzeko orduan erakundeei aholkularitza ematea eta kontsultatzen dizkieten auzi etikoak eztabaidatzea.
- Esparru Etikoaren eta Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoaren jarraipenerako adierazleak garatzea eta horiek betetzen di-

rela zaintzea.

- Sareen Sarearen konpromiso etikoarekin lotutako jardunbide egokiak jasotzea, zabaltzea eta sustatzea.
- Egindako jarduketan urteko balorazioa egi-  
tea eta argitaratzea.
- Esparru Etikoa eta Gobernatzeko eta Ku-  
deatzeko Kode Etikoa aldi berean berrikus-  
tea eta beharrezko aldaketak proposatzea.

Etika Batzordea ez da hartuko parte hartzeko organotzat, eta kideek ez dituzte haien erakundeak ordezkatuko. Gutxienez 3 kide eta gehienez 5 kide izango ditu, eta horiek 4 urterako hartuko dute kargua. 2 urtetik behin Batzordearen herena berrituko da. Sareen Sarean ordezkatuta dauden kolektibo guztien espezifikotasunak onartu daitezkeen bermatuko du Batzordeak. Esku-hartze sozialaren etikaren arloan aditua den pertsonaren batek ere parte har dezake.

Etika Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, eta beharrezkoa den guztietan. Organo honetan parte hartzeagatik, kideek ez dute inolako ordainsari ekonomikorik jasoko, ezta jenerotan ere.



## 1. ERANSKINA.

### APARTEKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Ekitaldia:	
Lekua eta data:	
Kostua, guztira:	Ekitaldia:
Parte-hartzaileak:	
Gastua justifikatzen duten arrazoiak:	
Lortutako edo esperotako emaitzak:	

## 2. ERANSKINA

### OPARIEN ERREGISTROA

Egindako data:	
Pertsona/Sail hartzailea:	
Dohaintza	Izena:
	Kargua:
	Erakundea:
Opariaren deskribapena:	
Gutxi gorabeherako balioa:	
Amaierako pertsona/erakunde hartzailea:	



# **Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi